

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuretzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

EMOZIOEK SALDUTA

Kontsumo arrazionalaren osagai nagusiak beharra, kalitatea eta prezioa dira. Baina marketin- eta publizitate-estrategiek zentzugabe kontsumitzera bultzatzen gaituzte, arrazoia alde batera utzi eta emozioetara lerratzea; guztiok, neurri handiagoan edo txikiagoan, emozioek bultzatuta erosten dugu.

1 Baina datu zehatzagoak aztertuz gero, kontsumitzaile batetik bestera alde nabarmena dagoela ondoriozta daiteke. Ez omen dago erosle arrazionalik, kontsumitzaile arrazionalak erosketa emozionaleranzko joera txikia eta autokontrol handia dutenak dira. **2** Bestalde, egindako ikerketek adierazten dute gure kontsumo-ohituretan arrazoia pixkanaka atzera ari dela eta emozioa, inpultsoa, aurrera.

Logikoa dirudi krisi ekonomikoaren garaian joera hori etengo dela pentsatzeak, baina datuek ez dute horrelakorik azaltzen. **3** Marketin- eta publizitate-estrategiak diseinatu dituztenek ezin dute krisi-garaian arrazoia baliatu, horrek kontsumoa jaitea eragingo bailuke. Horregatik, arrazoia lausotzera eta zentzumenak horditzera bideratzen dituzte ahaleginak. Airea girotzeko gailuak kontsumi ditzagun isiltasuna saltzen digute, baina beste gailu batzuei (zenbait xurgagailuri, esaterako) zarata areagotzea beste funtziorik ez duten piezak eransten dizkiete, kontsumitzaileak potentzia gehiago duela sinets dezan.

4

Salmenta-estrategia guztiak, ordea, ez dira hain sofistikatuak. **5** Kontsumitzaileei Interneten, txinatarren bazarretan edo saltoki handietan zergatik erosten duten galdetzen zaienean, erantzunak askotarikoak izan ohi dira: erosotasuna, ordutegia eta abar, baina erantzun ohikoena prezioak dira, aurrezteko aukera. Merkealdien edo eskaintzen amua irensteko arrazoi nagusia ere aurrezteka izan ohi da.

Jakina da saltokiek mekanismo estrategiko eraginkorrak dituztela, kontsumismorako predisposizio psikologikoa aktibatzen dutenak. Testuinguru horretan, kontsumitzaileak bere burua engainatzen du. Esaterako, saltoki handi batera doa aurrezteko, baina barruan dagoenean badirudi aurrezteko nahia galtzen duela, arrazoiarekin eta zentzuarekin batera. Horren adierazle dugu salgaien kokapen estrategikoa.

6

Dena den, erosteko erabakiak baldintzatzen dituzten faktore emozionalak ez daude beti kontsumitzailearen kontroletik kanpo. Esaterako, kontsumitzaileak marka bati uko egiteko erabakia har dezake, enpresa horrek Hirugarren Munduko haurrak esplotatzen dituela jakin duelako. Edo, alderantziz, bidezko merkataritza-gune batera jo dezake, ekoizpen-prozesuan giza eskubideak errespetatzen direla bermatzen diotelako edo ordaintzen duen dirua modu bidezkoagoan banatuko delako. **7** Baina hor ere, zaila da norberaren nahiak eta emozioak eta marketin-estrategiek eragindakoak bereizten. Gero eta ugariagoak dira produktuak ingurumenarekiko konpromisoa duela adierazten duten kanpainak, prezioaren zati bat gaixotasunen sendabideak ikertzera bideratuko dutela dioten iragarkiak...

Azkenean, salmenta-estrategiek kontsumitzaileen garunean sartu, haien erabakiak aurreikusi eta nahieran manipulatu dituztela dirudienean, adituek betiko neurri soiletara jotzea aholkatzen dute, kontsumo arduratsuagoaren mesedetan. **8**

IRAZUSTABARRENA, Nagore.
Argia, 2013ko abendua. Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A.** Etengabeko publizitate-bonbardaketek eta azken urteotako zailtasun ekonomikoek beharbada, kontsumitzaileen azala gogortu dute baina, sokaren beste aldean, sedukzio-estrategia gero eta sofistikatuagoak ari dira tiraka, adibideok lekuko.
- B.** Gurean, hizkuntza da horren adibide garbia. Euskaldun askok nahiago dute euskaraz iragartzen den edo testuak euskaraz dituen produktu bat erosi, horrek produktuaren kalitatean edo eroslearen poltsikoan inongo eraginik izango ez duen arren.
- C.** Premiako gaiak sakabanatuta egon ohi dira, eta kontsumitzaileak behar duena erosteko azalera handia ibiliko du, beste produktu asko ikusi, ukitu edo usainduko ditu, eta behar baino gehiago erosiko du.
- D.** Izan ere, nahiz eta leloak produktua partekatzeke gonbita egin, iragarritakoak ez du kontsumitzaileen eskuzabaltasuna bereziki piztu, are gutxiago kontsumitzaile arrazionalarena.
- E.** Izan ere, kontsumitzaileak gastua gehiago kontrolatzeko beharra sentitzen du, baina ekoizle eta saltzaileek kontsumitzen jarraitzeko eta, ahal izanez gero, kontsumoa areagotzeko ahalegina egiten dute.
- F.** Alegia, kreditu-txartelak ahalik eta gutxien erabili, erosi beharreko gaien zerrenda etxetik eraman eta, elikagaiak erostera goazenean, sabela ondo beteta joan.
- G.** Munduko neuromarketin-aditu nagusietakoek esandakoak aintzat hartuz gero, ondorioa garbia da: erostean erabat salduta gaude.
- H.** Horrenbestez, kontsumitzaile guztiek dute osagai emozionala; gakoa osagai horren eraginean eta kontrolean dago.
- I.** Prezioa da kontsumo arrazionalaren ezaugarri nagusietakoa, eta, hala ere, sarri, kontsumo emozionalera daraman bidea zabaltzen du.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BIOLOGIA OINARRI

Edward O. Wilson, soziobiologiaren aita, gure garaiko biologorik ospetsuenetakoa da. Inurrietan aditua, Wilsonek azken ondorioetaraino eraman du darwinismoa. Giza natura ulertzeko era aldatu duten lan ausarten egilea da. *Nondik gatoz? Zer gara? Nora goaz?* izenburu filosofiko hori ipini zion Paul Gauguin margolariak Tahitin egin zuen koadro ezagun bati. Wilsonek dioen bezala, gizakiek luzaroan erlijioan edo filosofian bilatu dituzte galdera horien erantzunak. Gaur egun, ordea, azken bi hamarkadetan erdietsitako aurrerapen zientifikoei esker, era egokiagoan azal daiteke giza kondizioa.

1975ean, *Soziobiologia: sintesi berria* lan mardula argitaratu zuen Wilsonek. Mugarría izan da pentsamendu eboluzionistan. Han, era askotako espezie sozialez hitz egin ondoren, animalien portaeran aurkitutako printzipio eta planteamendu biologiko berak aplikatu zizkien gizakiei. Animalien jokabide soziala (gizakiena barne) geneen eraginaren ondorio dela adierazi zuen: «Hautespen naturala baldin bada natura gidatzen duen legea, modu berean aginduko du portaera-kontuetan ere». Gure bizitza soziala ere gure geneetan oinarritzen da. Eta horrek polemika bizia eragin zuen. Askok gogor egin zioten kontra, ez ideia arbuiatzen zutelako, gizakiak barne hartzen zituelako baino. Ezkerretik nahiz eskuinetik eraso zioten, arrazista eta misoginoa izatea egotziz. Marxismoa, batik bat, haren kontra borrokatu zen.

Ordura arte giza gogo senik gabekoa zela uste zen, esperientziaren eta heziketaren bidez itxuratzen den orrialde zuriaren antzekoa. Kulturari egozten zitzaizkion portaerak, biologiaren bidez azaldu ditu Wilsonek. Intzestuaren debekua, esaterako, hainbat antropologok debeku kulturaltzat zeukana, hautespen naturalaren ondorioa da Wilsonentzat. Giza natura gai tabua izan da oraintsu arte, ukatu egin da giza natura. Ingurunearen eraginez edozein forma edo molde har dezakeen butzina bezalakoa dela pentsatu izan da. Baina, gizakia ez da *tabula rasa* bat. Hasieran zalantzan jarri zen soziobiologia, baina gaur egun erabat onartzen da. Azken aldiotan, gogoaren, geneen eta eboluzioaren zientzia modernoek gezurtatu egin dute «ohol hutsaren» mitoa. Edward O. Wilson, J. Maynard Smith edota Steven Pinker izan dira bide berriak urratu dituztenetako batzuk. Naturalismoa, azkenik, bizitzako alor guztietara zabaldu da (biogenetika, neurozientzia, gogoaren filosofia, psikologia eboluzionista, memetika, gramatika sortzailea...). Eta gehienek ontzat ematen dute.

Abereen portaera altruista eta kooperatiboaren auzia izan da Soziobiologiak gainditu behar izan duen zailtasun nagusietakoa. Azkenengo liburuan, *Lurraren konkista soziala* delakoan, ondorio batera iritsi da Wilson: giza izaeraren alderdi soziala edo «eusozialitatea» konpartitzen dugu erleekin, termitekin eta inurriekin. Azalpen darwinistaren arabera, jokaera egoistak eragiten dituzten geneak hautatzen ditu eboluzioak. Kasu askotan, ordea, animaliek —intsektuek, batez ere— elkarri laguntzen diote. Abere-sena, hortaz, ez da soilik bizitzarengatik borroka hutsa. Areago, banakoen sakrifizioak onurak dakartzkio taldeari.

«Naturalist» deitzen dio bere buruari Wilsonek, izen bereko autobiografian. Berari zor diogu *biodibertsitate* hitza, kontzeptu zinez garrantzitsua ekologian eta erabilera arruntekoa gaur egun. Kontserbazionista kartsua izaki, etenik gabe lan egin du espezie guztiek iraun dezaten. *Konsilientzia: ezagutzaren batasuna* saiakeran, biologia eta gainerako diziplina zientifikoak humanitateekin eta gizarte-zientziekin integratzea proposatu zuen. Jakintzaren adar handien arteko arrakalak txikitu ahala, gehitu egingo dira ezagutzaren aniztasuna eta sakontasuna. Beste kultur iraultza baten aurrean egon gaitezke, hortaz. Eboluzioaren teoriak egin dezake kultura bien arteko zubi-lana.

Ikuspegi-aldaketa funtsezko baten hasiera izan daiteke. Gaur kezkatzen gaituzten arazoak (gatazka etnikoak, gainpopulazioa, abortua, ingurumena edota pobrezia endemikoa) ezingo dira konpondu gizarte- eta natura-zientziak uztartu gabe. Zientzia eta humanitateak elkartuz, ilustrazio berria sortuko dela dio Wilsonek.

Biologia, genetika eta neurozientzia bezalako diziplinak ezinbestekoak dira betidaniko galdera filosofikoei erantzuteko. Izan ere, filosofiak lurzoru irmoan lan egin dezan ahalbidetzen du zientziak. Hala ere, jakintzaren adarrak ezinbestekoak izan arren, ez dira nahikoa.

Zientziek jokaera ebolutiboaren berri ematen digute, baina ez doaz harago. Zer falta da, orduan?

Gizakia ez da abere hutsa, abere linguistikoa baizik. «Kultura» da gizakiaren berezitasuna. Kulturari zor diogu, neurri handi batean, gu garen zer hori.

Biologiak estuki determinatzen ditu animaliak; gizakiok, halere, erabaki bat edo bestea hartzeko askatasuna badugu (ezkongabetasuna aukera dezakegu, zenbait

portaera makur zigortzeko bideak ezar ditzakegu, ekintza altruistak egin ditzakegu...). Espezie biologiko bat gara mundu biologiko batean. Gizakiok kontakizun baten aktoreak gara. Bukatu ez den espezie baten

puntu gorena. Historiak ez du zentzurik historiaurrerik gabe, eta historiaurreak ez du zentzurik biologiarik gabe.

SUDUPE, Jon. Berria, 2013ko urtarrila. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

9. Zer zor diogu, besteak beste, Edward O. Wilsoni testuaren arabera?

- a) Gizakion izatearen eta jatorriaren inguruko hainbat gogoeta eta azalpen berritzaile egin izana.
- b) Gauguinekin batera, *Nondik gatoz? Zer gara? Nora goaz?* galdera filosofikoei erantzun berriak ematea.
- c) Darwinismoa oinarri, eta gaur eguneko aurrerapen zientifikoak erabilita, filosofia aldatu izana.

10. Zer ondoriozta dezakegu Soziobiologia: sintesi berria lanaz esandakoaz?

- a) Espezie sozial desberdinek, funtsean, gizarte-jokabide bera dutela, geneek eragindakoa.
- b) Besteak beste, animalion gizarte-portaera genetikak baldintzatzen duela.
- c) Geneen eragina, hautespen naturalatik at, islatuta dagoela gizarteak duen jokamoldeetan.

11. Zergatik harrotu zituen hautsak Wilsonen ondorioztatutakoak?

- a) Gizakiaren gizarte-ikuspegia, nolabait, geneetan sustraitu zuelako.
- b) Emandako arrazoiak arrazistak, misoginoak eta Marxismoaren aurkakoak zirelako.
- c) Gizakia gizartearen parte gisa arbuiatu zuelako, genetikaren ikuspegitik aztertzeko.

12. Zer dio testuak giza naturaz?

- a) Hautespen naturalaren aitzakian, hainbat portaera debeku kulturaltzat zituztela antropologo batzuek.
- b) Giza gogoia hautespen naturalaren eta esperientziaren bidez itxura hartzen doala.
- c) Wilsonen, biologian oinarrituta, giza gogoaz aritzean sena berezkoa dela azaldu zuela.

13. Zer pentsaera defendatzen du Edward O. Wilson soziobiologoak?

- a) Naturalismoak tabuaren aurka egiteko balio zuela, giza naturaren eboluzioa azaltzeko.
- b) Soziobiologiaren argitan, giza natura esperientziaz eta bizipenez itxuralda daitekeela.
- c) Giza naturan senak agintzen duela kulturaren gainetik.

14. Zer ekarpen egiten digu Wilsonen azken liburuak?

- a) Animaliek, maiz, biologiak ezarritakoaren aurka, gainerako kideei lagundu egiten dietela.
- b) Genetikak animalien alderik norberekoiena garatzen duela, betiere eboluzioaren mesedetan.
- c) Animalien jokaera kooperatibistaren ikuspegia eta giza eboluzioarena aurrez aurre daudela erakustea.

15. Zertan ahalegindu zen, besteak beste, Wilson testuaren arabera?

- a) Naturalista eta kontserbazionista izaki, biodibertsitate terminoaren defentsan eta jakintzaren adar garrantzitsuenak batzen saiatu zen.
- b) Eboluzioaren teoria gailentzearen alde saiatu zen gehien, jakintzaren adar garrantzitsuenak alde batera utzi gabe.
- c) Naturalista izan arren, zientzia-arloak eta giza zientziak hurbiltzen ahalegindu zen, horrela ezagutza areagotuko zelakoan.

16. Zer nabarmentzen du testuak gizakiari dagokionez?

- a) Animaliak, oro har, genetikak mugatzen dituela; gizakiok, ordea, izaki biologikoak bagara ere, bestelako jokabideak izateko gaitasuna badugula.
- b) Gizakia abere hutsa baino gehiago dela, eta kultura dela gizakia desberdin egiten duena, biologia ezeztatzeraino.
- c) Gizakiaren historian biologiak ezinbesteko garrantzia duela, animalienagandik bereizten gaituen kulturaren parekoa, alegia.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EUSKARARENTZAKO BABESA ZABALDU BEHARRAZ

Hizkuntza normalizatua erabiltzen dena da, baina euskararen egoera aztertu duten azken ikerlanek erakutsi digutena ez dator guztiz bat xede horrekin. Ezagutza hedatu bada ere –EAEn, batez ere–, erabilera ez da neurri berean hazi, ezta hurrik eman ere. Hortaz, aurrerapausoak eman izanagatik, euskara normaltzea lekutan dugu oraindik, eta, gainera, ahalegin horretan trabatuta omen gaude.

Balantze gazi-gozo hori kezagarria bezain ulergarria da, aldi berean. Izan ere, esku-hartzeko plan bat diseinatzean, ameskeria litzateke lehenbiziko ahaleginean bete-betean asmatuko dugula pentsatzea. Planifikatutakoari segida logiko bat aplikatu behar zaio beti: emaitzak balioztatu, diagnostiko horretaz hausnartu, nola hobetu pentsatu, eta, azkenik, beste neurri batzuk indarrean jarri. Eskema hori izan da, hain zuzen ere, *Framing Berria* proposatzera bultzatu gaituena.

Lan horren muina zedarritzeko baliatu izan dugun hurbilpena komunikazio-teoriarena izan da, besteak beste *framing* terminoa: “Framing: errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak” (Goffman, 1974). Ikuspegi horretatik, sistematikoki miatu dira euskal iritzi publikoak euskararen inguruan (izan) dituen ideia-gakoak, arestian esandako egoera galgatuaren zergatia ulertzeko asmoz.

Euskararen inguruko gizarte-iritziak aintzat hartuz, iragan den mendeko 70-80ko hamarkadetan, trantsizio politikoaren garaian, agerikoa zen euskararekiko aldekatasuna Hego Euskal Herriko gizarte-sektore zabaletan. Ondoren, politikarekin nahasi da euskara, Moreno Cabrerak hain ongi azaldu duen eskemaren leloa betez: Estatu bat = Nazio bat = Hizkuntza bat. Horrekin bat eginez, euskal abertzaletasunak –*Framing Aldarrikatzaile* deitu dugun diskurtsoaren bidez– irmo defendatu du euskara gure zinezko hizkuntza bakar gisa. Horren aurrean, gizarte-sektore batzuk mesfidati agertu dira eta ez dituzte begi onez ikusi euskararen aldeko ahalegin eta neurri asko, inposatutzat eta diskriminatzailetzat hartu baitituzte.

Aldi berean, norbanakoaren hizkuntza-askatasunaren –gatzelania erabiltzearen– bandera altxatu dute; iritzi-korronte hori Framing Uzkur izendatu dugu.

Giro horretan, *Framing Aldarrikatzaileak* euskaldunen hizkuntza-eskubideak mahaigaineratu ditu, baina *Framing Uzkurak* arrazoibide horren legitimotasuna higatu du, halakoak askotan talibankeriatzat jota. Horren ondorioz, gatazka-kutsua atxiki zaie euskara normaltzeko asmoz abian jarri diren politika, plan eta ekimen batzuei. Gauzak horrela, euskararekiko aldekatasuna ahuldu egin da herritar askorengan, eta *Framing Aldarrikatzaileak* urte batzuk lehenago zituen zilegitasuna eta eragina lausotu egin dira hainbat gizarte-eremuren begien aurrean. Horrek eraginda, hainbat herritar euskaltzale noraezean dabil.

Diagnostiko horretatik abiatuz, galdera batzuk egin beharko genizkioke geure buruari. Posible ote da euskararen etorkizun duina ziurtatzea euskal gizartearen babes zabalik gabe? Bere eragina murriztua ikusi duen *Framing Aldarrikatzailea* nahikoa ote da euskarari etorkizun oparoa eskaintzeko? Erantzuna ezezkoa bada, hauxe litzateke gakoa: nola berreskuratu euskararentzat gizarte-aldekatasuna eta babes zabala? Aukera bat izan daiteke euskararen *Framing* delakoan eragitea, bere “hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak” birplanteatzeko. Asmo horrekin abiatu da *Framing Berriaren* proposamena, ustez, une egokian. Aniztasunaren balioa bere eginez, Hizkuntzen Ekologia/Hizkuntzen Iraunkortasuna jartzen ditu hizkuntza-diskurtsoaren zutabe. Ikuspegi horiek oihartzun zabala lortu dute nazioarte-mailan, eta hizkuntza gutxituak babesteko kezka duten giroetan arrakastatsu ari da izaten. Hemengo hizkuntza-egoerara ekarrita, lagungarri gerta dakiguke *Framing Aldarrikatzaile* eta *Framing Uzkuraren* arteko lehia eta talkaren arriskua bideratzeko. Horretarako, malgutasuna eta egokitze ahalegina eskatzen die bi diskurtso horiei, aro berri batera jauzi egin ahal izateko.

Dena den, *Framing Berria* ez dator *Framing Aldarrikatzaileari* eta *Framing Uzurrari* lekua kentzera eta horiek ordezkatzera, gaur egungo bi *framing* edo interpretazio horiei ekarpen baliotsuak aitortzen dizkie-eta. Zehatzago, *Framing Aldarrikatzaileak* egiten duen Euskal Herrikoa baino ez den hizkuntzaren defentsa aintzat hartzekoa da; areago, jarrera horrek gizarte osora hedatzea merezi du. Bestalde, *Framing Uzurrak* azpimarratzen duen hizkuntza-hautua egiteko norbanakoaren askatasuna balio garrantzitsua da. Euskararen normalkuntza beste estadio batera eramateko, ikuspuntu guztiak dira zilegi eta denak eztabaidatu beharko lirarteke.

Euskararen diskurtsoa berritzeko ahaleginetan hainbat gomendio egiten dituzte adituek. Esaterako, euskararen aldeko ahaleginetan egokiago jardun ahal izateko, oinarri egokia litzatekeela diziplinartekotasunetik abiatutako ezagutza soziolinguistiko aberatsagoa; edota euskararen normalkuntzak gizarte-aldaketa eskatzen duela ezinbestean. Argi dago, aukeratutako estrategiak dimentsio etikoa izan behar duela, ezinezkoa baita gizatalde bat, bere onarpenik gabe, jokabide linguistiko batzuetara behartzea.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki.
Administrazioa euskaraz, 2013ko urria. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

17. Zer esaten zaigu euskararen egoeraz?

- a) Egindako ikerlanak ez datozela bat euskararen erabilerari eta ezagutzari dagokionez.
- b) Euskararen erabilera ez dela uste beste hazi, ezta ezagutza-maila ere.
- c) Aurrera egin badugu ere, euskararen erabilera normalizatua erdiestetik urrun gaudela.

18. Zerk ekarri du *Framing Berria* proposatu beharra?

- a) Plana martxan jartzeko ametsa gauzatzean, bete-beteen asmatu ez zutela jakiteak.
- b) Planifikatutako segida logikoa aplikatu arren, bete-beteen asmatu ez duten usteak.
- c) Plana gauzatzera begira ezarritako pausoei jarraiki, lortutakoa hobetzeko nahiak.

19. Zer asmo izan dute *Framing Berriaren* sustatzaileak?

- a) Komunikazio-teoria aintzat hartuta eta euskal iritzi publikoaren ideiak arakaturik, euskararen normalizazioaren egoera ulertzea.
- b) Euskararen errealitatera hurbiltzea, horrela ideia-gakoak argitu eta ulertuko diren ustean.
- c) Lanaren muina zedarrizteko baliatutako komunikazio-teoria eta euskal iritzi publikoaren ideia-gakoak batuta, egoera iraultzea.

20. Zer ondoriozta dezakegu euskal gizarte-iritziei erreparatuz gero?

- a) Hego Euskal Herrian euskaren egoera ona zela, ondoren etorri zen egoeraren aldean.
- b) Politika eta euskara nahasi aurretik, gizartea, oro har, euskararen aldekoa zela.
- c) 1970etik 1990era bitartean ez bezala, gaur egun euskara nazio-hizkuntza bihurtu nahi dugula.

21. Zer dio testuak *Framing Aldarrikatzailearen* gainean?

- a) Hizkuntza-eskubideen aldeko aldarria zilegi bada ere, ez duela lehen besteko eraginik.
- b) Euskaldunon hizkuntza-eskubideak eskatzearen poderioz, legitimotasuna galdu duela.
- c) Hizkuntza-eskubideen aldarrikapenaren zilegitasuna higatu nahian aritu dela, gatazka-zantzuak nabarmentzeraino.

22. Zerk eragin du hainbat euskaltzale noraezean ibiltzea?

- a) *Framing* deritzenen arteko borroka ideologikoak, euskaltzaleen eragin-ahalmena gutxitu baitu.
- b) *Framingek* zuten zilegitasunak, euskaltzaileei baino ez baitzien eragiten.
- c) *Framing Uzkurak* gauzatutako higitzeak, euskaltzaleen eskubideen aurka egin baitu nabarmen.

23. Zein da *Framing Berria* proposatzearen asmoa?

- a) Gizartearen babesa eta aldeketasuna berreskuratuko dituen *Framing Aldarrikatzailea* finkatzea.
- b) *Framing* deritzon lan eginez, euskarak galdutako gizartearen sostengua lehengoratzea.
- c) Eragin murriztua baizik izan ezin duen *Framing Aldarrikatzailean* eragitea, diagnostiko berri baterantz abiatzeko.

24. Zertan datza *Framing Berriaren*, *Aldarrikatzailearen* eta *Uzkurraren* arteko elkarreragina?

- a) Hiru *framingak* balio eta eragin-esparru bera dute, ez baitute batak bestea ordezkatzen.
- b) *Framing Berria*, beste bien osagarritzat jo dezakegu, horien ekarria balioetsi egiten baitu.
- c) *Framing* guztiek daukate aintzat hartzeko ekarpenen bat, eta *Framing Berria* gainerakoen eredu da.

25. Zer azpimarratzen dute adituek euskararen diskurtsoa berritzeari dagokionez?

- a) Soziolinguistikan sakontzeaz harago, euskararen normalkuntzak gizarte-aldaketa ezinbesteko duela, betiere jokabide etikoa oinarri dugula.
- b) Diziplinen arteko ezagutza soziolinguistikotik abiatuta, eta dimentsio etikoa oinarri, euskarak gizartea alda dezakeela.
- c) Hautatutako estrategiaren dimentsio etikoa oinarri hartuta eta ezagutza soziolinguistikoan sakonduta, gizarte-aldaketaren berme izango dela euskara.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.
Oharra: **Asmatu izenpea** azterketaren anonimotasuna bermatzeko.

GAIA: Zerbitziburua zaren aldetik, zure ardurapeko langile baten eskaera jaso duzu. Lana eta familia ahalik eta egokien uztartzeko asmoz, etxean lan egiteko aukera emateko eskatu dizu. Lanpostuaren ezaugarriak aztertuta, aukera hori ez duzu egingarri ikusten. Idatzi eskutitza eskatzaileari, azaldu eskaera ukatzeko dituzun arrazoiak, desabantailak, lan-antolaketan eragin litzakeen kalteak, eta proposatu irtenbide bat edo beste.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu** eta **lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK

1.

LANKIDETZA KONTSUMOA

Lankidetza-kontsumoaz hitz egiten dugunean zerbitzu bezala eskaintzen diren produktu batzuez ari gara --partikularren artean alokairuan har daitezkeenak--; autoak, bizikletak, bidaiak... partekatzeaz; jadanik erabiltzen ez diren gauzakien birbanaketaz; eta lankidetza-bizitzako estiloez, zeinetan antzeko interesak dituen jendea elkartzen baita denbora, gunea edo trebetasunak partekatzeko.

Lankidetza-kontsumoa hautabide bat da, orain arte nagusi izan den «erabili eta bota» kulturaren aurrean.

Balio-aldakuntza ere ari da gertatzen, jabe izatearekiko jarrera aldatu egin da. Kontsumitzaileek lehentasuna ematen diote ondasunez gozatzeari eta ez horien jabe izateari. Kontsumitzaileek ahalik eta gehien gozatu nahi dute esperientziak, kostuaren erantzukizuna izan gabe eta jabetza tradizionalak dakarren konpromisorik gabe.

Bryan Walsh-ek ziurtatzen duenez, lankidetza-kontsumoari buruzko artikulu batean: «Egunen batean XX. mendeari begiratuko diogu eta zergatik geneuzkan hainbeste gauza galdetuko diogu geure buruari».

<innobasque.com>, 2012ko apirilaren 17a.
Egokitua.

2.

IBILGAILU ELEKTRIKOEN ARAZO EKOSOZIALAK

Ibilgailu elektrikoak emititzen duen karbono dioxidoa hutsaren pareko dela jakin badakigu, baina energia elektriko nonbaitetik atera behar da. Egunen batean, gure automobil-parke osoa elektriko balitz, eta horiek higitzeko baliatutako energia elektriko gaurko moduan sortuko balitz, are eta karbono dioxido gehiago emitituko genuke. Beraz, ibilgailu elektrikoak ugaritzearekin batera, energia elektriko sortzeko bide alternatiboak sendotu beharko dira.

Ibilgailu elektrikoak ez dira zaratatsuak eta ez dakarte kutsadura akustikorik. Baina, hirietan batez ere, zarata apur bat ez da txarra, instintiboki auto bat hurbiltzen ari zaigula jakiteko.

Ibilgailu elektrikoaren bihotza bateria da, baina gaur egun bihotz hori ahul samarra da; hau da, autonomia mugatua du eta gainera garestia da.

AIZPURUA, Joxerra.
Argia, 2014ko otsailaren 2a. Egokitua.

3.

EUSKOTAN ALA EUROTAN?

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan, *eusko* izeneko txanpona erabilgarria izango da egitasmoarekin bat egiten duten saltokietan. Helburua ekonomia lokalizatzea da, baina baita jokabideak aldatzea ere. Orotara, bat, bi, bost, hamar eta hogeitau euskoko 126.000 billete sortu dituzte. Oraingoz, 72 enpresa, denda, autonomo eta elkartek egin dute bat ekimenarekin, batik bat zerbitzuen, merkataritzaren eta nekazaritzaren sektorekoak.

Ekonomia analizatuz gero, ikus dezakegu diruaren % 90 baino gehiago ez dela lurraldean gelditzen baizik eta merkatu finantzarioetan. Esan dezakegu dirua ez dela existitzen; paper bat besterik ez dela. Diruaren helburua truke-sistemarako baliagarri izatea da. Lan egin ahal izatea da garrantzitsua, ekoitzi ahal izatea eta lurraldean bizia izatea. Eta, horretarako, dirua bitarteko bat da. Ez helburu bat.

Argia, 2012ko iraila. Egokitua.

4.

ETXEGABETZERIK EZ

Epaileek etxegabetzeak eteteko aukera izango dute, kaltetuek sinatutako hipotekan gehiegizko klausulak daudela irizten badiote. Espainiako Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratu dute *Etxegabetzeen Kontrako Legea* izenaz ezaguna den araua. Horren arabera, bi urtez eten egingo dira kolektibo ahulenetako pertsonak etxegabetzeko emandako aginduek; etxebizitzaren enkante-erregimenak aldatu egingo dira, eta berandutze-interesak mugatuko.

Etxegabetzeko prozesua eteteko aukera izateko, bi motatako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek: sozialak eta ekonomikoak. Eskaera egiteko baldintza sozialak betetzen dituzten artean daude, besteak beste, mendeko pertsona bat beren kargu dutenak edota genero-indarkeriaren biktimak. Baldintza ekonomikoak dagokienez, familiaren diru-sarrerak ezin izango dira Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa baino hiru aldiz handiagoak izan.

<EITB.com>, 2013ko maiatza. Egokitua.

5.

KRISIA ETA EMAKUMEAK

Krisiagatik emakumeen egoera okertu egin dela salatu dute hainbat eragilek, eta beste eredu politiko, sozial eta ekonomiko bat eskatu dute Emakumearen Nazioarteko Egunaren karietara. Gizartea eraldatzeko itxaropen moduan, feminismoa aldarrikatu beharra aipatzen dute, feminismoaren alde egingo duen kudeaketa politiko eraginkorragoa.

Sistema ekonomiko eta sozial honek, kapitalista eta patriarkala, zor ekonomiko ikaragarria du emakumeek egiten duten lan ikusezinarekin; merkaturarekin duena baino handiagoa. Sexuen arteko benetako berdintasuna dute jomuga eragileok; hori baita, gizarte eraginkor, solidario eta demokratikoa eraikitzeko bidea. Bidea luzea eta neketsua dela jakinagatik, eredu berri baten alde borrokan jarraituko dutela adierazi dute.

ARRATIBEL, A. Berria, 2013ko martxoa. Egokitua.

6.

JUSTIZIA DENONTZAT BERDIN?

Errespetatzen al dira Ikusmen- edo entzumen-arazoak dituzten pertsonen eskubideak? Eskubide horiek aitortu eta arautzen dituzten legeak egon badaude, eta, zalantza gabe, administrazioek eredugarri izan beharko lukete eskubide horiek egikaritzen.

Zeinu-hizkuntzaren interprete Virginia Revuelta andrearen arabera, Justizia Arloan gainerako arlo publiko eta pribatuetan ematen den egoera bera ematen da, alegia, pertsona gorren eta gormutuen eskubideak bermatzeko orduan, bitasuna dago. Alde batetik, legeak zeinu-interpretea izateko eskubidea bermatzen du; bestetik, ordea, Justizia Administrazioaren eta gormutuen testuinguruaren ezagupen ezak zeinu-interpretearen lana baldintzatzen dute.

www.justizia.net Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «EMOZIOEK SALDUTA»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
Testu zatiak	G	H	E	A	I	C	B	F

Soberakoa	D
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «BIOLOGIA OINARRI»

9.	A	10.	B	11.	A	12.	C	13.	C
14.	A	15.	C	16.	A				

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «EUSKARARENTZAKO BABESA ZABALDU BEHARRAZ»

17.	C	18.	C	19.	A	20.	B	21.	A
22.	A	23.	B	24.	B	25.	A		